



3 BARRURA BEGIRA

- Iparraldean LAB erakaskuntzakoekin



Irakaskuntza

LAB

Dep. Legal:

SS 734-77

LAB-Irakaskuntza

Isabel Iia 5.

Donostia

Franqueo

concertado 37/59

Irakaskuntza Iraultzen

38. ZENBAKIA
2000ko ABENDUA

4

EHINTZA SINDIKALA

- Nafarroan, 240 plaza.
- EAEn oposaketak baietz omen...



- Hitzarmen garrantzitsua heziketa berezian.



- NUPen eta EHUn diskriminaziorik ez!

14

HEZHUNTZA POLITIKA


- Espainiako kontrarreforma

20

BARRURA BEGIRA

- II Irakaskuntzako biltzarra martxan

Guk, geure eskola 16an Bilbora!!



Komunikabideen bitartez jakin dugu PPko Gobernuak Espainiako Estatu osoan hasi nahi duen hezkuntza-erreformaren berri. Bide beretik, jaso ditugu dagoeneko klase politikoaren lehen erreakzioak, haien artean zenbait autonomia erkidegotako agintarienak. Hala ere, delako erreformaren lehenbiziko helburu edo jomugan -hau da, ikastetxeotan- ez dugu informaziorik jaso, eta, jakina, hainbat gutxiago inork iritzirik eskatu digu. Euskal Herrian, gainera, erreforma iragartze honekin batera etorri da PP, UPN, PSOE eta UA alderdien zuzen-zuzeneko erasoak euskal heziketara kontra.

Euskal Herriko hezkuntza-komunitate askotarikoa osatzen dugunok ezin gaitezke egonean gelditu, eta salatu egin nahi ditugu ikusten ari garen jarrera arduragabeak. Aldi berean, erakutsi nahi dugu zein den gure ikuspegi komuna etorkizuneko hezkuntzaren inguruan, ez baitugu islaturik ikusten egiten ari diren planteamenduetan.